

Bero-beroan

Bideoak automatikoki katalanez azp titulatu

VILAWEBEN aurkitu dugu notizia. Google eta YouTubek abian jarritako sistemaren arabera 40 bat hizkuntzatar automatikoki itzuli daitezke bideoak, webguneak eta testuak ere bai. 40 hizkuntza horien artean daude ingelesa, txinera, hindia eta baita katalana ere. Aurki galegoa ere izango da zerrendan. Vila webek YouTube zintzilikatuta dagoen Obamaren bideo baten adibidea jarri du, erakusteko nola jarri dizkioten katalanezko azp tituluak. Beste hainbeste egin du egunkariek, *New York Times* txineraz irakur daitekeela erakutsi du eta *Aljazeera* katalanez. Katalanak muturra sartu du 40 hizkuntza horien artean, eta orain, webgunean bertan diotenez, itzulpenak onak izatea lortu behar da, akatsak nabariak baitira.

“...eta kitto!”-rentzat Ukan saria

HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBU- RUORDETZAK Eibarko *...eta kitto!* aldizkariari eman dio Ukan Berrikuntza saria 20 urteko bidean berrikuntzaren “bonbilla beti piztuta” izan duelako. Publizitate saria berriz, Euskaltelek 2008an hainbat euskarritan egindako kanpainarentzat izan da. Dermitek klinika dermatologikoak Aipamen Berezia irabazi du iaz egindako publizitate-kanpainarengatik.

Bestalde, HPSk euskarazko hainbat software produktu eta Internet eduki aurkeztu ditu. Hala nola, EusLinux 2009 software libreko sistema eragilearen bertsio eguneratua, Xuxen zuzentzailearen IV. bertsioa eta ordenagailuz lagundutako itzulpen-tresna, Wordfast. Eta, bestetik, bi corpus: *Lur Hiztegi Entziklopediko* eta *Lur Entziklopedia Tematiko* egu-

neratuak, eta euskaraz idatzitako doktoretza-tesiak.

II. Soziolinguistika Jardunaldia

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRAK bigarren jardunaldia antolatu du otsailaren 20rako. Erramun Osa, Itziar Elorza eta Fermin Lazkano arituko dira berrikeretan *Euskararen ezagutza eta erabilera. Datuek zer diote?* izenburupean. Vicent Partal, Iratxe Esnaola eta Gorka Juliok hitzaldi bana emango dute, eta ondoren, mahai-inguruan arituko dira euskara eta teknologia berriak gai hartuta.

BAHEA

Errotapea erabiltzaileak Tirakan esanak: “Nik antzeko argudioak [Roberto Manjonek honako webgunean idatzitakoaz ari da: www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1165230902] erabili izan ditut zenbait udal ordezkariaren aurrean (Aralar, EAE...) 3.000 biztanleko herri euskaldun batean 350 etxebizitza berri eraikitzeak eragingo zituen ondorio linguistikoez ohar-tarazi nahian... Hainbat azpiegitura eraiki aurretik ezinbestekoa izaten da Ingurumen Eraginari buruzko Azterketa egitea. Bada pareko zer-bait sortu beharko litzateke euskararen normalizazioaren ikuspegitik. Erabat ados nago Manjonek hizkuntza-politikei buruz duen ikuspegi zabalarekin, izan ere, politika guztiek dute euren baitan hizkuntza-politika bat. Industria, etxebizitza... politikak ere hizkuntza-politika dira, hizkuntza mailako ondorioak dituzten heinean, eta ziurrenik ‘hizkuntza-politika’ deitzen dugun horrek baino gehiago. Esaterako, herri euskaldunetan Babes Ofizialeko Etxebizitza bat eskuratzeko baldintzen artean euskalduna izatea ere sartu beharko litzateke. Jaurlaritza eta zenbait euskaltzale ilustreri horrelako proposamenak utopikoak irudituko zaizkie baina Irlandan edota Flandrian egiten dute jada. Zergatik gurean ez?”

TALAIAN

Langabezia eta xenofobia

Egunean-egunean pilatzen ari garen datuek ederki erakusten dute krisi ekonomikoa inork uste eta aurreikusi zuena baino sakonagoa dela. Larriena zera da, bertako nahiz nazioarteko inolako erakunde ekonomiko, finantzario eta politikok, eta mundua aztertzen aritzen den inolako erakundek, ez dakiela noiz bukatuko den krisia. Tunelean goaz eta inork ez du argirik ikusten. Gure herri eta auzoetan ordea, zera ikusten dugu: erregulazio espedienteak egin dituzten, ordainketak izozten dituzten, nominak atzeratzen dituzten, ateak ixten dituzten enpresak. Ondorioz langabezia etengabe gora egiten ari da. Hegoaldean 146.469 lagun daude langabezia.

Erne ibili behar dugu European jada nabaritu den etorkinen kontrako xenofobiarekin. Ingalaterran greba xenofobia egin dute eta litekeena da horrelako ekintzak European zabaltzea. Langile atzeritarren kontrako greba duela bi aste hasi zen Ingalaterrako petrolio findegi batean. Horiei babesa emanez, joan den astean, bi zentral nuklearretako 1.200 langilek 24 orduko geldialdia egin zuten findegiko langileekin. Hego Euskal Herrian 200.000 etorkin daude errolatuta eta urteak dira aberastasuna eta gizarte segurantzaren mantentzen parte hartzen dutela. Langabeziak gora egin duela ikusita, langileek, sindikatuek eta administrazioek elkar hartu beharko lukete xenofobia egoerak saihesteko. Euskal Herrian bizi eta lan egiten duenari eskubide guztiak onartu behar dizkiogu. Eta lana egiteko eskubidea berea bezain gurea da.

Juan Mari Arregi

Eusko Legebiltzar ez demokratikoa hautatuko da

ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

ASKATASUNA eta D3M hauteskunde lehiatik kanpo utzi ondoren, Alderdien Legeak bata bestearen atzetik egotzi ditu hauteskunde lehietatik ezker abertzaleko alderdi edo hautes zerrendak. Oraingoan, eta lehenbiziz ia 30 urtetan, Eusko Legebiltzarrak ez du izango ezker abertzale nagusiaren ordekaritza politikorik. Nafarroako Legebiltzarrean 2007ko foru hauteskundeetan utzi zuten ordekaritzarik gabe eta berdin beste udal ugarian ere. Bizitza instituzionala ez da geratu erakunde horietan, politikariek –haiei dagokien eremuetan bederen– herritarren bizitza kudeatzen jarraitu dute, eta kanporatutakoen aldi behineko protestengatik ez balitz, denak normal jarraitzen duela irudiko luke.

Baina denek dakite ez dela horrela, denek dakite ETaren aurkako gerran tresna bat gehiago dela Alderdien Legea, eta dozenaka milaka herritarren eskubide oinarrizkoenak urratzen direla. Denek dakite hori horrela dela, batzuek bultzatu egiten dute, besteak aurkakotasunetik isiltzen dira eta salatzen dutenak ere badira. Baina hutsune demokratikoak diren erakunde horietan, salaketak nekez hartzen du indar eraginkorrik.

Ez dago irtenbiderik bide horretatik, asperduraraino errepikatu da eta hala egiten jarraitu beharko da. Eta Eusko Legebiltzarraren osaketa berria demokratikoa ez dela izango ere errepikatu beharko da behin eta berriro, bai hauteskunde kanpian eta baita legegintzaldian ere. Ez ei dira ideiak legez kanporatzen –espetxeratzen–, baina zer dira ideiak, hauek interpretatu, defendatu eta garatuko dituzten pertsonarik gabe? Nola eska dakioko Batasunako bati Aralar edo EAri botoa emateko aukera duela, hauek ere indepen-



dentziaren alde daudelako? Zergatik ez eskatu Patxi Lopezi berari Juan Jose Ibarretxeri botoa ematea berau ere askatasunaren alde dagoelako?

NBE-KO Martin Scheinin kontalari bereziak ez du horrenbestetik esan –ezta esango ere–, baina Espainiak alderdiak legez kanpo uzteko duen legediaz pilatutako gomendioek nabarmen lotsagorritu beharko lukete zuzenbide estatuan oinarritutako edozein gobernu. Ez da horrelakorik gertatuko Moncloan, are gehiago luzatutako gomendioek Espainian duten oihartzuna hutsaren hurrengoa denean. Baina horrek ez du esan nahi espainiar agintariak halakoen aurrean eroso direnik eta, jakina, zenbat eta zabalkunde handiagoa are eta deserosoago. ETaren jarduerak giza eskubideak molde askotara urratzen dituela dio kontalari bereziak, eta ondoren Espainiaren ilegalizazio politikak giza eskubideen ikuspegitik arinak eta arriskutsuak direla ohartarazten du. Norabide biko salaketa horrek egiten du sinesgarri Scheinin jauna.

POLIZI irtenbidea, ez dagoela besterik. Molde batera edo bestera, hori da finean joan-etorrian darabilten mezua, asperduraraino errepikatua. Eta gezurra izan arren, itogin horrek putzua egiten du gatazkaren nekean. Ilegalizazio politika eta bere ondorioen etengabeko salaketa da gezur horren aurkako antidoto garrantzitsuenetakoa, baina ez bakarra. Ez dago putzua lehortzerik legez kanporatutako ezker abertzaleak berak ere XXI. mendeko Euskal Herriaren eta Europaren ezaguri politikoetara egokitzeko ahaleginetan sakontzen jarraitzen ez badu.

Ostiralean ekingo zaio 15 eguneko hauteskunde kanpaina ofizialari eta –eufemismoan sakonduz– jadanik botoa ofizialki eskatu ahal izango da: hautagai batentzat, abstentzioarentzat, botoa baliogabetzeko... Eta bitartean ETaren hurrengo atentaturako ere prestatu beharko dugu, Estatuaren kolpe bakoitzari indarrez erantzun baitio erakunde armatuak beti, eta bereziki hauteskunde garaian. Ea oraingoan EAE-ANVko zein udaletan.